



Hautzaro Ikastolako Aldizkaria


TXINPART

1995 Apirila - Ekaina - 2. Zenbakia



**San Juan, San Juan heldu da
sorgin begia galdu da
galdua bada galdu bedi
sekula ngertu ez balerdi**





ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ.

Burura datorkit, koxkortuak gauden batzuen gurasoek zer komeria izan zuten gu jaio eta guri izen emateko garaian: paperetan euskal izenik jarri ezin, etxean euskal deituraz, ikastolako paper ofizialetan gaztelerazko deituraz, andereñoak eta lagunak, berriz, euskaraz,... ez zen nahaste makala!

Beranduxeago, euskal izenak onartu ziren neurrian, izenen itzulpena burutu zen, nahiz eta, zenbaitzuri "Miren" gehigarria kentzen ez utzi.

Hala ere, oraindik, deituren euskalduntze prozesuan badago zer eginik: hain zabaldua izan ez den abizenen euskalduntzea, hau da, norberaren abizenak dokumentu ofizial guztietan euskal grafiaz agertzeko eskubidea eskatzea.

Hau burutzeko ondorengo pausu hauek eman behar dira:

Lehenik, Donostiako Hernani kalean aurkitzen den Euskaltzaindiaren bulegoan, norberaren abizenek duten euskal grafiaren ziurtagiria jaso.

Bigarrenik, euskal grafiaz idatziriko abizenak agertzen diren gutxienezko hiru froga bildu (errenta aitortpena, udaleko errolda, telefonikako kontratua,...)

Azkenik, jaiotze ziurtagiri, famili liburu eta aurreko dokumentuekin abizena euskalduntzearen eskaera burutu, Donostiako San Bartolomeko Erregistro Zibilera igorri.

Sei bat hilabetera jaso daiteke erantzuna, eta, erantzuna jaso bezain laster, N.A.N. berria egin eta leku guztietako abizen zuzenketa burutzeraz (banketxean, udaletxean,...), animo! ez da lan makala eta!

Administrazioak errazten ez duen lana bada ere, merezi du burutzea!

Batetik, euskal abizenek berezko grafia errepikupera dezaten eta bestetik, geuk burutuz gero

gure ondorengoek burutu behar ez duten lana izango da eta.

Beraz, eta bat edo beste animatuz gero, prest naukazue daukadan informazioa emateko.

Josu Arotzena Muxika

AGUR T'ERDI

Iadanik, eta gezurra badirudi ere, 94/95 ikasturteari amaiera ematera goaz Ekaineko hilabete honetan.

Urtean zehar nahiko etxerako lan, bilera, ohar batetik bestera izan ditugu ohizkoa den modura. Oraingoan BUZOIA sekzioak ematen duen aukera hau aprobetxatu nahiko nuke ikasle, guraso irakasle eta Ikastolako langileei, guztioi opor on eta atsegin batzuk opatzeko.

Ahal den neurrian lana alde batera utzi, eta datorren 95/96 ikasturterako indarrak hartu itzazue.

OPOR ONAK PASATU, ETA DATORREN IRAILA ARTE!

Hautzaro Ikastolako Zuzendaria.

DAGOKIONARI:

6. mailako ikasle talde batek kexa bat aurkeztu nahi genuke "Txinpart" aldizkarian. Adierazi nahi dugu Ikastola honetan, 6. mailan ez dela jolasgaraian ordutegia errespetatzen. Gehienetan 5 edo 10 minutu beranduago ateratzen gara, eta hurrengo klaseari ezin zaio minuturik kendu. Jolasgaraia beste asignatura bat balitz bezala errespetatu beharko genuke.

Gure proposamena hau izango litzateke: edozein arrazoiengatik jolasgaraira beranduago atera behar bagenu, hurrengo klaseari zenbait minutu hartzea ongi irudituko litzazuke.

6. mailako ikasle talde bat.

HAURTZARO INFORMATZEN

ZUZENDARITZA TALDE BERRIA

Ikasturte bukaerako ohizko gaia izaten dugu hurrengo ikasturterako irakasle plangintza: irakasle bakoitzaren lana zein izango den. Aurre-rago maila bakoitzeko tutore-irakasleak zein izango diren berri emango bazaizue ere, hona hemen datorren ikasturterako zuzendaritza talde berriaren aurkezpena: Zuzendaria Antton Kazabon, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasketaburua Sorkunde Lekuona, eta Berrigorrenko Bigarren Hezkuntzako ikasketaburua Helena Santamaria.



ESKOLARTEKO DANTZARI TXIKI EGUNA

Urtero egin ohi duten bezala, Maiatza-Ekaina hilabeteetan Dantza eskolek bere eguna ospatzen dute. Egun honetan Gipuzkoako dantzari txiki guztiak elkartzen dira. Aurtengoa Oiartzunen ospatuko da, Haurtzaro Dantza Taldean antolatuta, datorren Ekainaren 11an.



Egitaraua ondorengoa izango da:

- * 10,30etan, ongi etorria dantzatalde guztiei.
- * 11etan, herriko kaleetan zehar desfilea.
- * 12etan, Angelusa; ondoren dantzatalde guztien emanaldia.
- * 14,30etan, Bazkaria.
- * 16tatik 19tara, dantzaldia animazio talde batekin.



HAURTZARO MENDI TALDEA.

94/95 ikasturte honetan Haurtzaro Ikastolan martxan ditugun ekintza estraeskoletaz aparte (Atletismoa, futbola, saskibaloia, euskal dantza, bertso eskola, pilota eskola,...) beste ekintza sorta bat ateratzeko saiakera egin dugu.

Iadanik Mendi Taldea martxan jarri dugu. Mendi taldeko helbururik nagusia mendigoizaletasuna bultzatzea da, inguruko mendien ezagupena bideratuz, Oiartzungo aberastasun guztiak ezagutzen joan, ingurugiro heziketa bultzatu,...Irteera hauei kultur ikuspegi bat ere eman nahi diegu, adibide gisa Oiartzungo zaharkein, historiaurreko aztarnak ezagutzen, ... joango gara.

Mendi martxa hauen laguntza teknikorako Girizi Mendi Taldearekin harremanetan jarri gara. Ibilbidearen kontrola beraiek eramaten dutelarik.

HAURTZARO INFORMATZEN



Mendi ibilaldien ezaugarriak hauek dira:

- Hiru orduko ibiladiak, eta igande goizetan egiteko.
- Ibilaldietara ikasleak zein gurasoak etor daitezke.

Ibilbideak 9 urtetik (3. mailatik) gorako ikasleentzat egokituak dira.

Ikasturte honetan 3 ibilaldi burutu ditugu, hiru hilabetero bat izanik. Hurrengo ikasturterako egutegia nahiz eta zehaztu gabe izan, hila-betero ibilaldi bat egiteko asmotan gaude.

Aipatu behar da, inizatiba honek oso harre-ra polita izan duela eta animatzen zaretenok hurrengo urteko ibilaldietara gonbidatuak zaudetela. Animatu !!

HAURTZARO MENDI TALDEA.

HAURTZARO, GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO XV. BERTSOLARI TXAPELKETAN.

Eskolarteko XV. Bertsolari txapelketaren barruan, gure bertsolari gaztetxoak kantuan aritu ziren Hernanin.

Oso animoso eta indartsu azaldu ziren gure Ikastolako eta herriko ordezkariak.

Bete beharreko lana ederki osatu zuten eta Maiatzaren 20an, Donostian ospatu den finalean parte hartzeko txartela lortu zuten.

Eneko, Jon, Iker eta Eneko,
ZORIONAK!

Final horretan, txapela Goierriara joan zen. Dena dela, Oiartzungo taldeak saio polita egin zuen eta bigarren postua lortu zuen.

Maiatzaren 27an, Gasteizen, Euskalerriko txapelketa ospatuko da. Epai mahaiak, Goierriko beste batekin batera, gure ikastolako Jon Martin aukeratu zuen bertan kanta dezan.


Gipuzkoako txapela Oiartzuna etorri ez bada ere, Euskalerrikoak badu aukera oraindik.



18 urte artekoetan berriz, Igor Olague eta Zuhaitz Lizarralde aurkeztu ziren. Hauen parte hartzea ez da txikietan bezala taldeka izan, banakoa baizik.

Finalera pasa ez badira ere, maila ona erakutsi zuten.

HAURTZARO BERTSO ESKOLA



HAURTZARO INFORMATZEN

PIRAGUAZ GOZATZEN BIDASOALDEAN



Aurtengo udaberrian 6. eta 7. mailako ikasleak Irungo Santiagotarrak Piraguismo-eskolak antolatu dituen ikastaroetan parte hartzera animatu dira. Esperientzia berri hau guztiz gustokoa izan dute parte hartu dutenek.

ETA, IKASTURTE BUKAERAN ZER??? IBILALDIAK.

Kaixo:

Lehenengo mailakoak gaituzue.

Aurten lehen aldiz, hiru egunetako irtenaldi bat egitera goaz. laz gau bat etxetik kanpo egin genuen, aurten BAI!


Pozik gaude, nahiz eta eguna hurbiltzen dihoan heinean, emozioa, urduritasuna, nahia,...kanporatzen dugun.Norekin lo egin? Banaka? Binaka? Nolakoak ote dira logelak? nik goiko literan lo egin nahi dut! nahi dudan jantzia jantziko dut ! ...

Ah! aurten Beizamara goaz. Bertako monitorea hiru egunetako programa bidali digute: papera birziklatu, hostoak bildu, jaspeatu eta hauekin irudiak osatu. Museoak bisitatu. Base-ria eta bertako tresneria eta abereak ikusi... egun guztiak okupaturik!! Abantail bat dugu, hiruhilabete honetan landare gaia lantzen ari garenez, gauza batzuk ikasiak izango ditugu. Bestetik datorren ikasturtean baserriko gaia hasteko ere, ondo etorriko zaigu.

Eta bukatzeko, hiru egun gelako lagun guz- tiekin eta irakasleekin pasatzera, "ESPEZIALA" DA! a zer nolako abentura.

BERNEDORA ibilaldia:

kaixo lagunok: 2. mailako ikasle bat naiz. Ekainaren 14 ean Bernedora joango gara hiru egunerako. Bernedoko gauzak politak izango dira. Tarteka jolastu eta marrazkiak egingo ditugu. Kanpoan ere jolastuko gara, baina egun gutxi egongo gara bertan; baina hala ere oso ongi pasatuko dugu. Eta, bazkaltzeko zer izango ote dugu??? Agur, gero arte.



HAURTZARO INFORMATZEN



3. mailakoak, ZUAZARA.

3. mailakoak ZUAZARA uhartera joango gara ikasturte bukaerako ibilaldian.

Bertan uretako ekintza ugari egingo ditugu: arraunketa, optimist, piraguismoa,... Egun ahortzi ezinak pasatzeko asmotan goaz!

BARATZE BORDA ESKOLA.

"Ingurugiro-Heziketa Eskola" honetan gure 4. mailako ikasleek azken urte hauetan parte hartu dute hiru egunetako egoneldi bat burutuaz eta hango aktibitate guztietan partaide izanaz:

- * Baserriko animaliak elikatuz, zainduz,...
- * Barazkien zainketa: landu, joratu, jaso,...
- * Tailerrak: artilea, ogia,...
- * Basoko irtenaldiak (Ekosistema): Gizakiak eta inguruko ur-lur eta basoetako elkarre-
kintza aztertuz.


5. MAILAKO IBILALDIA

Ekainaren 20tik 22ra 5. mailakoek Gasteiza ibilaldi bat egingo dugu. Hiru egun hauen egitaraua honoko hau da: Gamarrako igerilekua ezagutu eta bertan egun on bat pasatu, hiria ezagutu (alde zaharra, Arte Eder eta Amerikaren museoak bisitatu, Euskal Lege Biltzarra,...), eta hiru egun ahuetan elkarren arteko harremanak sendotu eta disfrutatu. Ea eguraldiak ere laguntzen duen!

6. MAILAKOEN IBILALDIA.

Aurten 6. mailakoak Arotz-Enea Ingurugiroaren Hezkuntza Zentrura goaz. Arotz-Enea Zentrua, Nafarroako Etxarri-Larraun herriskin kokatua dago.

Bertan, BASERRIA eta ELEMENTUAK (lurra,



HAURTZARO INFORMATZEN

airea, sua eta ura) deituriko programetan parte hartuko dugu. Programa hauen helburua, alderdi antropologiko-kultural ikuspegia lantzea eta ikertzea da.



7. mailakoak Gipuzkoatik Nafarroara

7. mailako ikasle eta irakasleek, ikasturte honetako azken hiru egunak

LIZARRA-n igaroko ditugu. Kokalekua, Lizarrako kanpina izango dugu eta bertako eta

inguruko zenbait "txoko" ezagutzeko gogorik ez zaigu falta.

Hara nola:

- Iruñeako planetarium-a

- Eunate

- Iratxe

- Lizarra: herria bera, monumentuak, merkatua...

Ederki pasa nahi dugu eta horretan ahaleginduko gara!



8. MAILAKO IBILALDIA


"Euskal Herritik kanpo, zer ikusi?"

Urtez-urte, kurtso honetako ibilaldia urteko proiektu izan da. Helburu bezala, gertuko mugal igarota esperientzi berria bizitzea jarri dugu. Honekin batera, gure asmoa, elkarrekin egun ahaztuezinak igarotzea da.

Aurten Masnou (Bartzelona) aldera goaz. Bertatik antolatu ditugun irteera desberdinak burutuko ditugu, besteak beste Bartzelona hiria bisitatu (Zooa, Zientzia museoa, Nou Camp,...), inguruko herrietako "aguaparc"etara (uretan murgilduz jolas egiteko), eta noski!, aurtengo "boom"na: Salouko "PORT AVENTURA" estreinatzena.

Bidaia prestatzen aritu garenean jarritako ilusio eta esfortzua laister asetuko ditugu.

Eta, noiz goazen? Ekainaren 18tik 23ra.





BBB 1. ETA 2. MAILAKOAK: ZARAUTZ ETA LIZARRA.

Maitzaren lehen astean, 3 egunetako irte-naldia egin genuen 1. eta 2. mailako ikasleek; lehenengoak Zarautza, eta bigarrenak Lizarra-ra.

Ibilaldi honetan, elkarren arteko harremanak estutzeaz gain, herria eta bere inguruak gozat-zeko aukera izan genuen. Eguraldi bikainak lagundu zuen gure txangoa, egin genituen ekintzen mesederako.



BBB 3 IKASBIDAIA

Iaz bezala, Haurtzaro Ikastolan igarotako hainbat urteri nolabaiteko agurra eman nahian, Paris, Belgika eta Holanda aldera abiatu ziren Apirilaren 27an BBB 3. mailako ikasleak.

Parisen, "Asterix Parke"an egun pasa ahanztezina pasa ondoren, bertako leku adie-ragarrienetara jo zuten, hiri honen xarma eta handitasunaz jabetu eta oroigarritzat argazki tipikoak atera nahiean. Horra hor, adibidetzat, Eiffel dorrearen parean gure ikasleetako bat-zuk.

Ondoren lau egunetan gure lurraldearekin konparatuz hain desberdina den Holandak lilu-raturik utzi zituen: bertako lautadetako tulipa-nen kolore biziak, errotak, adreilu gorrizko etxe bereziak, kontaezineko kanal kopurua, bizikle-tak, bertako jendearen abegikortasuna eta iza-era irekia...

Handik itzuleran Belgikako hiririk ikusgarrie-netakoa den "Brujas" en geldialdi bat egin eta atzera Oiartzun aldera abiatu ziren, ikasbidaia gogoangarri honi amaiera emanez.

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

HAURRARI IRAKURLE BIHURTZEN LAGUNDU **HARREMANETAN JARTZEKO GAKOAK**

Irakaskuntzaren lehen urtearen ondoren "irakurle" bihurtzearen erresponstabilitateak duen garrantziaz oharturik, umea liburutik urruntzera bultzatzen duten arrazoirak aurkitzen saiatu gara.

Gaztetan irakurle egiten ez denak geroago bihurtzeko posibilitate gutxiago dituela jakinda eta ume batek liburu bat irakurtzeko harekin erlazio ona izan behar duenaren jakinaren gainean egonik zenbait hilabetez, 7 eta 10 urte bitarteko haurrekin aritu gara lanean eskola, liburutegi eta familiatan irakurle hasi berri bat eta bere libururaren arteko haustura eragiten duten elementuak zehaztu nahian.


Umeei, istorio bat irakurtzeari zergatik utzi dioten galdetzen zaienean, ia beti arrazoin berberak aipatzen dituzte (komiki liburuak edo irudidun albunak baino gehiago, lehen nobelak izan ohi dira) :

ABIAPUNTUA

- Gaia ez da beraien interesekoa.
- Istoriaren korapiloa berandu dator. Lehen orrialdetan ez da ia ezer gertatzen.
- Abiapuntuko egoera ez dute argi ulertzen.
- Ezin dute akzioa gertatzen deneko eszenatokia irudikatu.
- Pertsonaiak beraien artean erlazionatzeko zailtasunak dituzte. Berehala uzten diote nor den nor jakiteari.

ESTILOA

- Ez dute beti jakiten elkarrizketetan nor ari den hizketan.
- Zenbait parrafoen esanahia erabat ulergaitza zaie, testuak hitz zail gehiegi dituelako. Hitz hauek testuinguru argi batean kokaturik ez daudenean, esaldiak ez du inolako zentzurik.
- Esaldien estiloa konplexua da, beraiek darabilten hizkeratik aldendu egia. Ezinezkoa zaie bere lengoaiaren erregistroa erabat aldat-



zearen eta irakurtzearen esfortzua -arreta handiago eskatzen diena- aldi berean egitea. Forma literarioetara progresiboki pasako dira lehen hezkuntzako urteetan zehar.

- Egileak testuan egiten dituen digresio edo desbideraketek, irakurle "motela" denari gertaeren haria galerazten diote.

- Testua, ulertzen ez dituzten kultur erreferentziez josita dago.

- Urte askoren ondoriozko diren bizikizunekin egiten dute topo, helduek bakarrik izan dezaketen esperientziaren elementuekin, 7-8 urteko ume batentzat ulertezinak direnak.

ENGRANAIA

- Istoria argi hasi den arren, lehen zatian erabilitako engranaia aldatzen denean, irakurleek haria galtzen dute.

- Irakurle hasi berriak egitura sinplea behar du.


Gutxigorabehera zer gertatuko den irudikatu beharra dauka, ondoren datozkion gertaerak asmatzean atsegin har dezan. Kontakizunaren bilakaera, gailurra, eta gustoko izango duen bukaera ere atzematea beharrezkoa du.

- Istorioak ez du erritmorik. Ez du bertan kokatu ahal izateko erreferentzi puntorik eskaintzen. Eta ez dago gauza nekagarriagorik, hausturarik gabe eta 60 edo 100 orrialdetan zehar titulorik gabe goitik behera iragaten den kontakizun luze bat irakurtzea baino. Kontakizun bat arnasaldi batez irakurri benarra dago, narrazioaren aldiei dagozkien atsedenaldiez irudi, titulu edo hutsarte batez markaturik egongo direnak.

MAKETAZIOA

- 150 orrialde eta irudi gutxiko liburu bat irekitzeak desgogatu eta atzera eragiten dio irakurle motelari.

- 7-9 urte bitartean baztertzen diren liburuetan itxurak garrantzi handia izan ohi du. Bere



irakurtzeko gaitasunari dagokion testu-irudiaren arteko erlazioa duen liburuak behar dute.

- Orriak luzeegi edo zabalegiak badira, lerroen luzera eta testu kopurua handiegiak izango dituzte. Testuaren inguruan hutsarte bat egotea nahitaezkoa da, hauek testua nabarmentzeaz gain, ikusiaz batera ez baitu hain itogarri egiten, atseden inpresioa ematen du.

- Tipografia txikiegiak, letra estutuegiek, tarte desegokia duten hitzek, elkarrengandik hurbilegi dauden lerroek, zailtasunak erasten dizkiete liburuarekiko erlazioari. Parametro hauek guztiak zituzten testu forma desberdinak erakutsi dizkiegu hasiera zikloko umeei. Aho batez, irakurtzeko erosotasun handiena eskaintzen diena aukeratu dute.

GOGOKOEN DUDAN PERTSONAIA

Umeek istorioko heroiekin liluraturik geratu beharra dute. Gogokoen duten pertsonaiekin identifikatu ahal izan behar dute eta horregatik, pertsonaia horren jokaera ulertzea ezinbestekoa dute. Hauek, nolabaiteko koherentzia psikologikoa izan behar dute, eta bere psikologia-

rekin bat datorren jokaera logikoa. Heroia interesgarria izan dadin eta batek berarekin identifikatzeko gogoia izan dezan ere beharrezkoa da. Interes eskaxeko istorioak, benetako heoi-rik ez dutenak, berehala ahazten dira.

MUKIZAPI BAT. AZKAR !

Istorioko on batek irakurlea aurrerantz bultzatzen du. Heroiaren emozioak bizi baditu hauek bere egite ditu. Aitzitik, beldurra, lasaitasuna, sumindura, poza, atsekabea, e.a. bezalako emoziorik sentiarazten ez duten istorioak ez dira gogotsuegi irakurtzen. 8-9 urte inguruan, istorio on batek irakurleari hurrengo orrialdera pasatzeko irrikia sortarazi behar dio, zer gertatuko den jakiteko edo bere heroia bertan beharra ez uztearren.

LAGUNDU! IRUDIAK


Umeek ez dituzte testuarekin bat ez datozen irudiak atsegin, ezta dagokiena baino 10 orrialde aurrerago edo atzerago bilatu behar direnak ere. Heroia liburuaren haseratik bukaraino ezagungarria deneko irudiak eskatzen dituzte. Testuaren aldaketei egokitzen zaizkien espresio desberdineko begiradak, aurpegiak, perfilak...

Baina irudia ulergarria izatea ere beharrezkoa da: gauza eta pertsonak ezagutzeko aukera eskaintzen duten plano eta ikuspuntuak proposatzea. Beharrezko da ilustrazioak aberats eta anitzak izan daitezen eta era berean, hasi berrientzako testu batean gehiegi luzatu gabe edota akzioaren garapena pisutsuegi egin gabe nekez deskriba daitekeen informazioa osa dezan.

BIDEZIDORRAK

Guraso orok atsegin luke bere seme-alabak liburuak irensteko gogoia izatea. Edo, noizean behin, behintzat, "kalitatezko" nobela batekin interesa agertu eta bukatu arte irakurtzeko gai izan dadila. Baina, "zer egingo diagu, ba!" Irakurzaletasunerako bide desberdinak izaten dira eta gehienetan zeharbide ugari ere bai.

Haur batzuk ez dituzte "umeentzako liburuak" direlakoak atsegin. Ez dituzte inoiz irakurtzen. Batzuek nahiago izaten



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN


dute beraiek sortutako istorioak adierazi edo beren arrazoin pertsonalak direla eta, ez dute idatziaren munduan sartu nahi, edo narrazioak gustoko dituzte baina irudietan bakarrik, hala nola, komikietan, telebistan... Alferrikakoa da liburu batean murgilarazteko edozein saiakera. Beraien inguruan irakur daiteke, nobelagile askoren kalitateak goretsi, mota guztietako gaiak proposatu.... baina arrakastarik ez. Eta geroago, halako batean, 12, 15 urte inguruan edota beranduago, heldu batek hor nonbait galdutako liburu bat aurkitzen dute. Hura irentsi eta bat-batean, benetan interesatzen zaizkien tituluak irakurtzeari ekiten diote.

Beste batzuei, dokumentalak, testu teknikoak edo prentsa bakarrik gustatzen zaizkie. Irakurri eta piskanaka deskubrituz doazena osatzen saiatzen dira. Ez dago kezkatzeko inongo arrazoinik. Nobelak ez dituzte gogoko, besterik ez. Irakurketaren aurkikuntzan norberak bere erritmo eta modua dauka, eta baita bere izaeraren arabera generora ere. Badira familiak, non gurasoek asko irakurtzen duten edo idatziarekin zuzenki lotutako lanbide bat duten. Bere seme-alabek, ordea, ez dute irakurri nahi. Familian aportazio kulturalik preziatuenetakoa den zerbaitean, liburuan, ez dute inongo interesik.

Irakurtzen ez duen ume bat, irakurtzera zenbat eta gehiago behartzeak, horregatik zenbat eta errudunago sentiarazi nahiak, honen blokoa areagotu eta hainbat eta gutxiago irakur dezan besterik ez du lortuko. Agian, ume horrek bere gurasoen aukera berdinak egin ez dituela, eta ez duela irakurri nahi onartu behar da eta aukera hori errespetatu, horrek egunero bizitzan eta eskolan arazo larriegirik eragiten ez badio.

ETA HELDUEK HAURRENTZAKO LIBURUAK IRAKURRIKO BALI- TUZTE.....

Seguruenik harriturik geratuko lirateke haurrentzako zenbait liburu irakurtzeak sortarazten dien gozamina atzematean. Ikusmeneko gozamina, gaur egungo ilustratzaile ugari kalitate handiko artista baitira. Gozamina, testu on batek eragin dezakeen emozioagatik. Beharbada heldu asko harri eta zur geratuko lirateke istorio batzuek beren baitan duten



ume izaera zatiarengan eragina dutela nabaritzean. Eta horrek sekulako garrantzia dauka!

Agian harritu egingo lirateke istorio batek azterketa derberdin ugari -soziologiko, ideologiko, psikologikoa, e.a...- egin dakizkikeen edukina duela jakitean, honek sinbolikoki bada ere, gizakion egia bat adierazten baitu non irakurle gehienek beren ezaugarriren bat ezagutu dezaketen.

Istorio on batek beti uzten du aztarnaren bat irakurlearengan. Eta liburu batzuek merezi dute zenbait mailatan irakurtzea: umearekin, zeinari zuzendua dagoen liburua; eta ondoren, beste irakurketa batean, istorioaren sinbolismoa eta kontakizunaren zein pertsonaien nondik norakoa ulertzen saiatuz. Hau, zalantzarik gabe, beste gozamen bat litzateke eta bide batez, liburuak hobeto aukeratzen ikasteko bitarteko bat.





HAURTZARO IKASTOLA EGUNA 95; IZASKUN ZUBELDIA, 25. URTEURRENA.

Aurten, Haurtzaro Ikastola eguna ospatzearekin batera, bertako irakasle batek 25 urte bete ditu Ikastola honetan irakaskuntza lanean: Izaskun Zubeldiak. Honengaitik egun honetan tarte berezi bat eskaini nahi izan genion guztiok, ikasle, guraso eta Ikastolako langileok, homenaldi txiki bat berari egiteko.

Bestalde, gertaera hau dela eta, bera tutorea den gelako ikasleek elkarrizketa egin diote, bere 25 urte hauetako gora-beheren berri izan dezagun.

ELKARRIZKETA.

Izaskun, betidanik izan da Ikastolan ezaguna. 25 urte darama hemen lanean. Azken 2 urte hauetan gure tutorea izan da eta Txinpart aldizkarirako elkarrizketa bat egin diogu.

1.- Zerk bultzatu zintuen irakasle izatera?

- Haur txikiekin egotea gustatzen baitzitzaidan, eta besteei laguntzea ere bai.

2.- Zenbat urterekin hasi zinen hemen lanean?

- 23 urterekin.

3.- Zein egoeratan aurkitzen zen ikastola zuetorri zinenean?

- Oso ikastola txikia zen, hasi berria, jendea ilusio handiarekin zebilen lanean eta oso giro jator eta atsegina zegoen.

4.- Gogorrak egin al zitzaizkizun haserako urte haiek?

- Bai eta ez. Lehen esan bezala, oso giro jatorra genuen, baina Administrazio aldetik oztopoak genituen; gainera testu liburu eta materiala guk sortu behar genuen.

5.- Zer moduzko urteak iragan dituzu ikastolan? Azal diezaguzu zure 25 urte hauen laburpentxo bat.

- Gehiengoak oso ondo. Hasierako urteak lehenengo mailan igaro nituen, gustokoa nuen irakurketa eta idazketa inguruan ikasleekin lan egitea. Ondoren, mailaz-maila 8. maila arte eman ditut klaseak eta pozik! Tartean, ikastolako zuzendaria izan naiz eta orain zuekin Ingelesa lantzen ari naiz.

6.- Nabaritu al duzu urte hauetan zehar aldaketarik?

- Bai. ikastola asko handitu da, lehen familia bat bezala zen eta orain handitzeak beti ekartzen ditu arazoak, baina soluzionatzeko goaz.

7.- Zuretzako ikastolan, urte bereziren bat egon al da?

- Bai, urterik berezienak zuzendari egon nintzenak.


8.- Konta diezaguzu istorio xelebreren bat.

- Ba behin ileapaindegira joan eta nire ondoan zegoen neska bat nirekin hitzegiten hasi zen. Eta ezkondu behar zuela eta hainbat gauza gehiago kontatu zizkidan. Denbora asko berarekin hitzegin ondoren, zera galdetu zidan:

3.urteko ikasleak. Haur Hezkuntza



4.urteko ikasleak. Haur Hezkuntza



5.urteko ikasleak. Haur Hezkuntza




1 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza

2 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza



3 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza



4 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza




5 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza

6 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza

7 mailako ikasleak. Denigarritzko Bigarren Hezkuntza

6 mailako ikasleak. Lehen Hezkuntza



7 mailako ikasleak. Denigorrizko Bigarren Hezkuntza



8 mailako ikasleak. Denigorrizko Bigarren Hezkuntza



1.BBBko ikasleak. Denigorrizko Bigarren hezkuntza

2.BBBko ikasleak. Denigorrizko Bigarren hezkuntza



3.BBBko ikasleak. Denigorrizko Bigarren hezkuntza

- Eta zuk ez al nauzu ezagutzen?

Orduan nik ezetz esan nion, ondoren berak azaldu zidan nire ikaslea izana zela. Hau da hau lotsa! nire ikaslea izana eta eza-gutu ez.

9.- Irakasle bezala zer moduzkoa zarela uste duzu?

-Ahalegin guztiak egiten ditut ona izateko, gustora egiten dut lan ikasleekin.

10.- Izan al duzu noizbait irakaskuntza uzteko gogorik?

-Ez, oso gustora sentitu naiz giro honetan. Eta inoiz baino indar gehiagorekin aurkitzen naiz, orduan "aguantatu" beharko didazue.

11.- Inglesaz gain ematen al duzu beste gairen bat?

-Orain ez, baina lehenengo zikloan eman behar ziren guztiak: lenguaje, euskera, natur-gizarte... denetik.

12.- Inglesa utzita beste gairen bat nahiago al zenuke?

- Behar ba da bai.

13.- Zure 4 seme-alabak ikastolan ibiliak dira eta bat oraindik dabilena. Zer diote ikastolari buruz?

-Oso gustora egon dira ikastolan. U.B.I.n



dagoenak BBBn dagoenari ahal duen denbora gehiena ikastolan pasatzeko esaten dio.

14.- Zer erakutsi dizute 25 urte hauek?

-Ba bizitzak alde asko dituela eta zenbat eta gehiago lagundu besteei, hobeto eza-gutzen direla bizitzako alde hauek.

15.- Noiz arte jarraitu behar duzu lanean?

-Ez dut pentsatu, baina momentuz jarraitzeko asmoa dut. Geroak esango du.

16.- Egin ez dizugun galderaren batentzat erantzunik ba al duzu?

-Ikastolatik atera zareten ikasle guztiei esango nizueke, hemen igaro dituzuen urteak gogoratzeko.

Bueno, estutasunezko galderarik egon ez delakoan eta elkarriketa atsegin honen ondoren bukatu behar dugu. Mila esker, Izaskun.

8B-KO IKASLEAK.





HAUR HEZKUNTZA

ERROSKILAK

Ale honetarako Haurtzaro Ikastolako 3 urteko haurrek postre goxo-goxo bat prestatu nahi izan digute: ERROSKILAK.

Ikasturteko gai bat elikadura izan dugu; adin hauetan gaiak modu atsegin eta sinple batean lantzen ditugu ikasleek disfruta dezaten. Eta lan praktiko bat planteatzerakoan, zer egin? Haurrekin erroskilak egitea pentsatu genuen; eta pentsatu eta egin.

Osagaiak zein ziren aztertu ondoren, haurrek etxetik ekarri zituzten.



Lehenengo osagaiak elkartu.



Denak laguntzeko irrikitzen zeuden.



Maza egin ondoren, erroskilen forma landu.



Prejitu, eta zeinen goxoak zeuden!!!

LARRAULA GOAZ!

Azkenean, 5 urtetan lehen aldiz egunak pasatzera ateratzeko momentua iritsi da. Ze emozio desberdinak nabari zaizkien!

- Batzuek: iufi! ze poza!
- Besteak: ui! ze beldurra!
- Eta beste batzuek: ni ez naiz joango!

Ibilaldi honekin gure beldurra zera da: etxetik kanpoko egoera baten aurrean, haurra egoikitzen joatea, honek suposatzen duenarekin...

Haurra lehen aldiz familia girotik kanpo sentitzen da, honek dakartzkion sentimendu-emozio, gora-behera guztiekin (beldurra, inseguritatea, poza,...).

Bestalde denon aurrean, bere autonomia maila frogatzeko aukera ezin hobe da: gai naiz bakarrik jazteko!, jateko!... handitu naiz!

Irtenaldi hauetan, irakaslearekiko eta besteekiko harremanak indar berezi bat hartzen dute.

Eta ikusgarria da nola arduratzen diren bereaien motxilataz: arropa, zakua, panpina, nezeserra,...

Jakin nahi al duzue joan aurretik elkarriketetan ateratako zenbait komentario?

- Aiorak: Berdura jarriko al dute?
- Jonek besoa eskaiolaturik du eta: Eta nola jantziko naiz? Nik ez dut ohea egingo!
- Saioak: Nik beheko literan egingo dut lo!



- Mireiak: Eta pixa egiten badut?
- Iraiak: Elkarrekin lo egin dezakegu?
- Eta beste zenbait haurrek:
 - Panpina eraman al dezaket?
 - Zuk (irakasleari) non egingo duzu lo?
 - Zer jartzen dute gosaltzeko?

**LEHEN HEZKUNTZA****PANPINA JOSTEN**

MATERIALA: bi ohial, plantila bat, haria, pastorratza, orratza, titarea, bi botoi, artila, eta alpilea.

PANPINA NOLA EGIN:

- * Plantila bi ohialen gainean jarri eta rotuladorearekin marraztu.
- * Marra hauetatik panpina josi.
- * Tarte bat utzi eta jositakoaren ondotik moztu.
- * Panpinari buelta ematen zaioa eta alpilez betetzen da.
- * Artilarekin ilea egin eta panpinaren burua josi.



* Begien lekuan bi botoi josi eta ahoa ari gorriarekin egin.

Gero nahi baduzu, arropa egin diezaiokezu. Erreza ezta?

2. mailako ikasleak.

TXORI BAKARTIA

Behin bazen txori bakarti bat. Basoan bizi zen, bera bakarrik. Txantxangorri bat zen eta zuhaitz baten adarrean zuen bere habia. Berak bilatzen zuen bere janaria. Egun batean zuhaitzetik zizaren txiki bat ikusi zuen, eta txoria ziza-rearengana joan zenean, zas! , zizareari heldu zion; baina orduan sasi artetik otso bat irten zen. Txoriak otsoa ikusi zuenean, hegan abiatu zen, baina alferrik, otsoa oso ondolan zegoen eta jan egin zuen.


Orain esaten dute, txori horren ondolan zegoen errekan, ongi begiratzuz gero, txoria ikusten dela. Ikusi duten guztiek badakite, nahiz eta erotzat hartu; neronek ere ikusi nuen, eta egia da. Hala ere hemen badago gauza bat egia dena: eroetxean nago. E! UTZI BAKEAN! EZ LOTU MESEDEZ, HORI EZ!

6. mailako 3 ikasleak.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

INGURUGIRO ETA KONTSUMORAKO HEZIKETA

"Egungo talde-arazoak analizatzea, parte hartzen duten faktoreak, pertsona nahiz giza



taldeek hauen aurrean hartzen dituzten jarra desberdinak nahiz oinarritzko balioak eza-gutzeko moduan arlo desberdinetan jaso diren ezagutzak erabiliz, aipatu arazoei eta hauek izan ditzaketen konponbideei buruzko iritzi kritiko batera iritzi ahal izatea (OGD, 1994)" helburutzat izanik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapako lehen zikloan zehar-lerroen gisara INGURUGIRO ETA KONTSUMORAKO HEZIKETA deituriko proiektua martxan jarri dugu.

Aipaturiko proiektua bi zatitan banatu dugu; lehenengoan, SOLIDARITZA landu genuen, eta



bigarrenean, ZABORRAK izenekoa, ingurugiroa eta kontsumoaz ihardun dugu.

Proiektuaren SOLIDARITZA deituriko lehen zatian, gure Lur planeta eta bere barruko biztanleria bizitzen ari den egoerari buruz arituginen, IPAR eta HEGO bezala identifikaturiko lur eremuetaz eta aberats eta behartsuen arteko ezberdintasuna nola areagotzen ari den, hain zuzen.

Ilido honetatik, bigarren zatian, ZABORRAK aipatzerakoan,

sarri zaborra bera sortzeko gertazten den prozesu osoaz jabetzen ez garenez, hau da, lehengaien ekstrakzioa, explotazioa, elaborazioa, komertzializazioa eta kapitalista den gizarte honek bideratutako kontsumismoa eza gutzea oso interesgarritzat jo genituen.

Proiektu honen bidez, hirugarren munduarekiko lehen munduko multinazional indartsuek azaldutako jarrera inperilaistari, kontsumismoak produktuei bideratutako erabilera okerrari, ingurugiroari sortutako kalteei, eta edozein egoera problematikoei gutxienezko erreflexio maila eta tratamendu integrala eskeiniz, gerora begira, ikaslego, gurasoak eta irakaslegoa sentsibilizatu eta bere hobekuntzan partaide izan daitezen bideratzeari elkarrekin ekin diogu.

Hautzaro Ikastolako

DBH etapako lehen zikloa

Oinarrizko bibliografia:

* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: Curriculum Garapenerako Dekretua: OGD. Eusko Jaurlaritza. 1994. Gasteiz.

ZERGATIK PANPOX liburuaren kritika.

(Arantza Urretabizkaia)

Orokorrean nahiko inpresio ona jaso dut liburu hau irakurtzean. Emakume baten gora-beherak agertzen dizkigu, emakume izatearen "zama" edo ardurak azaldu nahirik.

Kontakizuna modu trinko batez egina dagoela iruditu zait, alegia, elkarrizketa konbentzional eza, etenik eza, puntu eta aparte ezak,... berezitasun handia sortzen dute eta ulermenerako arazo handia ez izan arren, nahiko pisutsua egiten da, den-dena modu berdinean batez

adierazia egotea.

Pertsonaiak hiru besterik ez dira: ama, Antxon bere semea eta Txema, Antxonen aita dena dirudienez. Ez da inolaz ere familia konbentzionala, aita etxetik alde egitean, biak, ama eta semea bakarrik geratzen baitira. Amak egin behar aurre edozein arazori, Txema noiz etorriko zain dagoen bitartean.

Gure ama honek ez du inolako beldurrik erdal hitzak sartzeko, nire ustez, edozein euskaldun arruntel hitzegingo lukeen eran mintzatzeko zaigularik. Adib. pelukeria, bueno, mantxa, labadora,... Beraz, hizketa arrunta erabiltzen du, ideiak nahasturik agertzen dira, ordenamendu falta nabaria da. Nire iritziz, hau apropos egiten du, aurrez sorturiko helburu baten atzetik.


Zenbait pasartetan amatasun zentzua agertzen da, eta asko dira protagonista nagusia emakume denaren seinalea adierazten diguten xeetasunak: hilerokoa, Antxoni zuzentzen zaion modu goxoa; hemen, era berean ama-semearen arteko eguneroko elkarrizketa era xebearean egina dagoela esan nezake, hau da, lerro batetik bestera pasa gabe:

"Aurpegia leun-leun edukitzeko da, panpox, baina ama, zurea beti suabe dago. Zure ama zaharra nekatua dago, panpox, zu ez zara zaharra, zu berria zara."

Baina nire ustez, nahiz eta ohizko formatik aldentzen den, irakurleok gal ez gaitezen bala gaitzek, elkarrizketa hasten duenak, zeharka egiten badu ere bere nortasunetako bat adierazten digunaz.


Berezia da ipuia, eta emakume garenontzat are gehiago.

2. BBBko ikasle bat.



HAUR JOLASAK

Zenbat lauki daude?



TXISTEAK:

* Gizon bat tailer batera joaten da eta han bere laguna ikusten du; eta zera esaten dio:

- Adizu Pello! Begira ezazu ea intermitenteak funtzionaten duen.

Eta erantzuten dio:

- Orain bai, orain ez, orain bai, orain ez,...

* Jaimito etxean dago, eta esaten dio bere aitari:

- Aita, aita, goazen zirkora!

Ez ume, ikusi nahi zaituenak etxera etortzea dauka!

*- Hori al da haginak doainik ateratzen duten lekua?


- Lehenengo aldian bai.

- Eta bigarren aldian?

- Ez dakit, ez da inor bueltatzen eta!




Saski baloian




Erantzunak:
 * GURUTZEGRAMA: Errenderi, Goizueta, Lesaka, Irun, Lezo.
 * HAUR JOLASAK: 23 lauki daude.
 * PUZZLEA: "Dena sinestea ezer ez sinestea bezain arriskutsua da".


NAHASTE-BORRASTE

Pintatu.



- | | |
|-------------|------------|
| 1 → Morea | 4 → Urdina |
| 2 → Laranja | 5 → Horia |
| 3 → Gorria | 6 → Berdea |





Si quieres participar en alguna de las secciones de la revista, esto es lo que tienes que hacer:

* Todos los trabajos deberán ir acompañados de la firma del autor (nombre y apellido) y su número de DNI.

* Los plazos de entrega de trabajos finalizarán un mes antes del fin del trimestre; este curso, a finales de Febrero y finales de Mayo, respectivamente.

* Los trabajos se enviarán a esta dirección:

Hautzaro Ikastola
TXINPART ALDIZKARIA sekziorako
Elorrondo z/g, 20180 Oiartzun

Otra opción será depositarlos en el buzón de la Ikastola.



Aldizkariko sekzioren batean parte hartu nahi baduzu, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

* Zure lanak izenpetua izan behar du; Izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi behar dituzu.

* Ikastolako helbidera bidali behar dira lanak, eta sobrean aldizkarirako dela eta zein sekziarako den adieraziko da. Edo, Ikastolako buzoian utziko da.

*Hautzaro Ikastola
TXINPART aldizkaria,sekzioa.
Elorrondo Z/G, 20180 Oiartzun.*

* Lanak jasotzeko epea, hiruhilabete bakoitzaren bukaera baino hilabete bat lehenago izango da; aurtengo ikasturtean, Otsaila bukaera eta Maiatza bukaera. Hala ere, ez azken eguna arte zai egon.

